

BALIO PROPOSAMENA

Guk sortu dugun proiektuarekin, betaurrekoak daramaten pertsonen bizitza ahal dugun neurrian erraztatzean datza. Horretarako, gure produktua diseinatu dugu.

Gure betaurrekoak beste betaurreko batzuekin konparatuz, hauek kristalean sortzen den lausoa, euri tantak... kendu eta kristalak garbitzen dituzte. Produktu hau ekoizten bakarrak gara merkatuan, hau da, konpetentzia zuzenik ez daukagu. Bezeroa ezaugarri berezi honengatik gehigarri bat ordaintzeko prest egongo da, karakteristika hauek dituen produktu bakarra delako. Gainera, prezioa finkatzean merkatuan oinarrituko gara, produktuaren ezaugarriekin eta bezeroen ordaintzera prest egongo direnakin bat datorrena.

